

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abenduaren 15a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Sakana • Gaurtik aurrera salgai dago 'Galdesakan', Sakanaren inguruko galdera erantzunen mahai jokoa
Koldo Goñi • «Kluben eta Mendi Federazioaren arteko komunikazioa hobetu nahi dut»



Nafarroako harrapari negutarren errolda egiten ari dira egunotan Gorosti elkarteko kideak. Hotsandiko izena paratu diote ekimenari, baina egiten ari direna ulertzen erraza da. Kontua da Nafarroan negua igarotzen duten miru gorriak zenbatzen ari direla. Eta, bide batez, beste zazpi espezieetako aleak ere zenbatuko dituzte. Miruak zenbatzeko ez da inolako prestaketarik behar, txoriak ikusteko zaletasuna izatea nahikoa da. Horregatik, edozeinek emaniko laguntza eskertuko dute.


MIRU GORRIAK ZENBATZEN

Sakana •

'Galdesakan', Sakanako tribiala

Bierrik elkartearen eskutik galde-erantzunen mahai jokoa kalean da

Galdesakan jokoak, galde-erantzunen bidez, Sakanako eskualdea hobeto ezagutzeko aukera entretenigarria eskaintzen du. Galdera mordoa bildu dituzte bertan, batzuk bitxi askoak.



Gaurtik aurrera salgai dago *Galdesakan*, Sakanaren inguruko galdera-erantzunen mahai jokoa. ● EGUNKARIA

BIERRIK ELKARTEAK, SAKANAKO euskaltzaleak batzen dituen erakundeak, bere azken bazarrean eskualdea ezagutarazteko mahai jokoa bat egitea erabaki zuen. Horretarako, lan taldea osatu, eta Sakanako tribiala egitean hasi ziren. Ideia bai, baina, ezaugarri guztiak zehaztu beharra zegoen. Mendez mendez pilatutako makina bat kontu osatzen dute herri baten nortasuna, eta horren isla jaso nahi izan da *Galdesakan*en. Hori guztia sei ataletan bildu dute: historia, kirolak, kultura, euskara, natura eta geografia, eta ohiturak. Guztira 1.500 galdera dira, 250 txarteletan banatuak.

Galdesakan galde erantzunen jokoa da. Gutxienez bi jokalarik behar dira jokatzeko, baina bestela ez da mugarik. Jokoa gazte eta helduei begira egina dago. Galderak asmatu ahala, jokalariek ibilbidean aurrera egingo du. Jokoa hainbat mugarriak lortzea da. Mugarri bat gai bakoitzeko. Lan hori lehen egiten duenak irabaziko du. Hau guztia espreski *Galdesakan*entzat asmatutako ibilbide berezi batean egingo da. Tableroa Koldo Arnanz margolari altsasuarren egin du. Haritz hosto baten itxura du, eta barruan Sakanako hainbat irudi adierazgarri azaltzen dira. Esaterako, jokoa hainbat irudi adierazgarri azaltzen dira. Esaterako, jokoa hainbat irudi adierazgarri azaltzen dira. Esaterako, jokoa hainbat irudi adierazgarri azaltzen dira.

Joko hau gaur bertan jarri da salgai Sakanako liburu dendetan, 5.000 pezetan. Atzean gelditu dira galdera bila egindako lanak: entziklopedietan, liburuetan, aldizkarietan... Gauza bera esan daiteke galderekin pasatu behar izan duten galbahe eta txukunketez. Euskara zuzentzaileek ere tartean muturra sartu dute. Eta hori guztia gutxi ez balitz bezala, karrikaratu aurretik hiru

proba egin dira Ihabarren, Etxarri-Aranatzen eta Altsasun. Proba hauen xedea *Galdesakan*ek funtzionatzen zuen edo ez ikustea zen. Horretarako, hainbat pertsona bildu izan dira mahai inguruan, eta horien iritzia eta

aholkuak jokoa hobetzeko erabili dira. Bierrik elkarteak hiru babesleren laguntza izan du: Sakanako Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politika zuzendaritza desagertua eta Viscofan enpresa.

Galdesakan mahai jokoa entretenigarria dagoeneko karrikan da; jokatzeko hastea besterik ez da falta. Galdetu Sakanaz. Galdetu eta esan.

→ Alfredo Alvaro Igoa

Arakil

Euskara taldea martxan

Arakil ibarra, Ihabartik Errötzera, edo alderantziz, gaur egun hamabi herriz osatuta dago. Guztira 850 biztanle baino gehixeago bizi dira herriotan. Gutxi izanagatik ere, arakildarrek ez dira geldi egoten eta makina bat salta eta kontu dituzte; esaterako, euskararen alde lanean diharduen euskara talde bat, Urbaran hurbileko mendiaren izena hartu duena. Taldeak, batez ere, Etxarren, Hiriberri eta Ihabarko jendea biltzen du. Sei urte daramatzate lanean, eta ibarreko jende gehiago biltzea lukete gogoko. Oraingo jende gutxi eta asmo handiak baitituzte.

Bitartean ekin eta ekin dabilta, eta urte bukaera honetarako kultur egitaraua antolatu dute. Egitarretan txotxongilo emanaldi bat izan zen iragan asteko asteazkenean bertako elkartearen. Gaurko, ostiral arratsalderako, adin guztiendako bideo proiektzioa programatu dute, Ihabarko Herriko Etxean. Eta bihar, Akelarre taldearen soinuek Etxarango frontoian egitekoa den gaupasa alaituko dute. Izotzil edo urtarrilerako utzi dituzte jolasak eta karaokea. 13an izanen da hau, Hiriberriko Squashean. Hori guztia eta gehiago egiteko asmoa dute Urbaran euskara taldekoek. Eta hala beharko, euskaldun gutxi badira ere, Arakilek euskararen aldeko apustua egin baitu.

→ Alfredo Alvaro Igoa

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Egunkariak ez dute aitzakia handirik behar izaten zifrak kaleratzen hasteko. Aurreko asteko jaiegun kateatuak iritsi aurretik ere argitaratu zituzten batzuk: hainbeste nafar aterako zela kanpora, Paris eta Tenerife zituztela helburu gogokoena, hotelak inoiz baino beteago egonen zirela, batez besteko hainbeste gastatuko zutela...

Osagarri gisa herrietako kronistari bitxikerien jasotzea eskatzen zaio eta artikulugileari analisia eta hausnarketa. Bestalde, idazlea figura eta deskribapen bidez ukitu literarioa ematen ahalegintzen da: hiria lokartu egiten da, hustu; denbora gelditu, orduak nagitu...

Hori guztia entzun eta irakurri eta gero, ez da harritzekoa borondatez edo ezinbestez bizilekutik aldentzen ez denak bizitzatik eta denboratik kanpo dagoela senti-

Zubirik gabe

tzea. Egun horietan bizitza eta kilimak odolerraino eramaten dituen zera hori hor nonbait dago.

Nahi izanez gero, ordea, mirariak, gezurak edo irudikeriak oso gutxi irauten dute. Berriz ere, kalera irtetea bezalakorik ez dago. Ibilbide ezagunenean ere beti izanen da zerbait. Espaloia zapaldu orduko ahantziak zentuenak jartzen zaizkizu begien aurrean. Hor dira Eguberrietako erosketak aurreratzea erabaki dutenak, zuhaitzaren orpoa behar duten txakurrak eta jabeak, aita gaitxo zaiola eta gauak haren aldamenen eman behar dituenak, jantzi onenak soinean Nafarroako Ama Birjinen irudiak ikusteko asmotan katedralera inguratu direnak...

Aurreko horrekin nahikoa ikuskizun bada ere, askotxo falta da. Ez dakit zenbat, ez baita hori neurtuko duen ezer. Ibili egin behar da, eta ohiturak aldatu falta den hori antzemateko. Eguneroko ibilbidea eta ordua mudatu

ezean ezin dira aurkitu. Izan ere, horretan dago gakoa: hiritar horiek eta beren mugimenduak ikusezinak dira, baita egun argiz ere. Gutxitan elkartzen dira, gehienez ere bizpahiru ibiliko dira, eta mugarik gabeko hiri puskatu bat eratzen dute.

Honenbestez, hauta ditzagun eguna eta ordua. Jaiegun bateko arratsaldea, hiru eta erdiak aldera, esaterako. Parke edo etorbide zabalenetan barrera ikusiko dituzu eskuak sakelatan, solasean, apal. Orduaren zain dade, ordu merkeenaren zain. Eta tenorea iritsita atari ilunetan kokatu dituzten telefono kabinetara joko dute. Hari bat baita orain zubiak, eta hari horrek, ahots kezkatuen oihartzunez gain, beste aldeko itsasertza ekartzen die, oso-osorik. Zubiak. Amets ez-tietan berriz zeharkatzen duzula ikusten duzu, kontrako norabidean. Eldarnioetan... eldarnioetan ez da ezer ikusten.

Nafarroa ●

Bihar da final handia



Euskal Kantu Txapelketaren finala, ohi denez, Doneztebeko Bordatxon egingen dute bihar. ● EGUNKARIA

Nafarroako Kantu Txapelketako partaidetza bikoztu egin da aurten

Bihar, 16:30etik aurrera, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finala egingen dute Doneztebeko Bordatxo aretoan. Tafallako eta Agoizko kanporaketen ondoren, antolatzaileak kontent dira txapelketarekin.

NAFARROAKO EUSKAL KANTU Txapelketa, jakina denez, hemendik aurrera, urtero egingen dute. Hortaz, iaz txapelketa izan zen, aurten izan da eta heldu den urtean ere izanen da. Hori kontuan izanik, txapelketako antolatzaile Pablo Joxe Aristorenak erran du aurtengo txapelketa aurreko urtean baino hobeki ateratzen ari dela.

Parte-hartzaileei dagokienez, aurten iazkoen bikoitza dira.

Gainera, iaz kanporaketa bakarra egin zen, eta aurten bi egin dituzte. Tafallako kanporaketa kultur etxea bete egin zen, eta Agoizkoan 400 pertsona inguru bildu ziren.

«Aipatzekoa da adin guztietakoak bildu direla», komentatu du Aristorenak. «Kuriostate bezala agian aipatzen ahal da zaharrena Pedro Legaz izan dela, Orbaitzetako semea eta duela urte batzuk bertako alkate izana.

Bere bikotekidea Anjel Aintziburu luzaidearra izan zen, hau ere 70 urtetik gorakoa».

Beste aldetik, Aristorenak nabarmendu du gazteek sormen lan «izugarria» egin dutela. «Lau abesti berri izan dira aurten», erran du. «Bestalde, kantutegi zaharreko bi kantu kantatu dituzte Aurizko Iñaki Irigarai eta Nerea Biurrarenak. Eta beste anekdota bat: Koldo Telletxea burlatarrak Haurtxo

haurtxoa kantua bere haur hila-beteetakoa besotan zuela eman zuen Tafallan». Ikustekoa da ea Bordatxoko finalean ere haurtxoarekin kantatuko duen.

Hamabi kantako finala

Doneztebeko finalean honako bakarlariek parte hartuko dute: Salvador Arriolak (Sunbilla), Semeak aitari; Koldo Telletxea (Burlata), Haurtxo haurtxoa; Jaione Olazabalek (Areso), Eire, eta Selva Baronek (Burlata), Nere maite.

Bikoteak honako hauek izanen dira: Izaskun Samaniego eta Marta Ibañez, (Tafalla), Sinesten dut; Iñaki Irigarai eta Nerea Biurrarena, (Auritz), Martxoaren leheneko; Xabi Fernandez eta Mikel Zorrilla, (Iruñea), Egun berri bat; Javier Itoitz eta Aritz Ugalde, (Agoitz), Ibañeta; eta Selva Baron eta Aritz Bizkai (Burlata), Zazpi lore.

Azkenik, lau izanen dira finalean ariko diren taldeak: Manexak (Iruñea), Zoin eijer den; Gurea (Tafalla), Adizu ene maitea; Txantrea (Iruñea), Erronkari; eta Agoitzarrak (Agoitz), Maitea nahi baduzu.

Ohorezko gonbidatu gisa, Anjel Aintziburu eta Pedro Legaz ere ariko dira kantuan. Epaimahaia Arantxa Ezkurrak, Mikel Juanizek eta Amaia Zubiriak osatuko dute. Aurkezle lanetan Xorroxin Irratiko kideak ariko dira. Saioaren ondotik, ohi denez, afaria izanen da txapelketan parte hartu duten guzietan.

→ Asier Azpilikueta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Ezkonberriak eta kalabazak

Herrian gelditzen ez diren bikote ezkonberriak, kalabaza erraldoiak, denetarik bildu du **Ttipi-ttapa** aldizkariak bere azken zenbakiko orrialdeetan, tokian tokiko berriemaileen eskutik. Zugarramurditik dator gurera ekarri dugun lehen berria: «Zugarramurdin egin berri den azken ezkontza urteko bosgarrena izan da eta hori berri handia da (urte anitzetan ez baita bakar bat ere izan), baina bertze aldetik badu bere alde txarra: borts bikote hoietatik bat bakarrik geldi-

tzen dela herrian bizitzen, eta bertzeak, lana dela, etxebizitza dela... kanpora gan izan behar dute. Gure herri ttiki hauek husten ari zaizkigu!».

Oronozko Argiñenea etxean, berriz, kalabaza erraldoia atera da: «Oronozko Argiñenea etxean 77 kiloko kalabaza ateri da. Hirutan hogeita hamar urte dituen Fulgencio Oteiza Maiterenak zaintzen du baratzea eta sekulan ez omen du honelako kalauzarik ikusi: «Bertze urteetan eta aurten egin dira

kalabaza kozkorak, 40-50 kilokoak, baina honelakorik inoiz ere ez». Gan den urtean Oronozko etxe berrietako obra inguruan atera zen kalabaza batetik hartu zuen hazia, erein eta aurten lau ondo eman dute. Honelako ale bat ateratzeko sekretuaz galdetzerakoan zera dio Fulgencio: «Aurtengo uda ona gan zen, euria noiznahi egingen zuen eta beroa. Ardi gorotz pixko bat izan da ongarri bakarra». Beraz kalabaza ikusgarria izan dute aurten Oronozen.



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Kristoren Ituna

Neska-laguna elkarrizketaren aldekoa dela esanez etorri eta Itun bat sinatzea proposatu dit. Nik ezetz esan diot, baina berak, temati, kristoren txapa bota eta azkenean, gauzak argitzearen, hiru galderarekin erantzun diot:

1. Ados al gaude Xaxa katu bat dela?
2. Ados al gaude lan handia ematen digula?
3. Ados al gaude egun guzti-guztia lotan ematen duela?

Berak popatik hartzera bidali nau esanez erantzunak begi-bistakoak direla; beraz, guztiz logikoa ez bada ere, amore eman eta elkarrizketara deitu dut, eskuzabalki, eta sukaldetan Itun bat egiteko bilera amaigabean aritu gara. Bilera sekretuan. Atea itxita. Goizerako Ituna prest genuen. Adostutako testuarekin biok pozik geunden. Hitzaurrean gure katuari, Xaxari, kaka gehiago ez egiteko eskatzen genion; asperturik gaudela kaka hori guztia garbitzeaz, garestia ateratzen zaigula hainbeste harritxo erosi beharra eta, gainera, hortxe duela komuna guk kaka egiten dugun modu berean berak ere kaka komun-ontzian egin dezan. Itunaren gainontzeko puntuetan Komuna eta Komuneko papera gorai patzen ibili gara eta bertan aurkitzen ahal ditugun zisterna (a! zisterna!), eskuila (o! eskuila!) eta uraren kanalizazioa bera (a! uraren kanalizazioa!). Hemen, batez ere, gorai patu ditugu ur zikinaren desagerketei buruzkoak: ur zikinaren desagertu behar dira, ur zikinak fuera eta, arrunt garrantzitsua, ur zikinak kanpora. Itunari, noski, Komunaren alde Ur Zikinaren kontra titulua ezarri diogu. Gero gonbita egin diogu Xaxari. Salaren erdian zutik Ituna sina dezala eskatu diogu seriooki, irmoki, samurki gonbita eginez gero, irribarretsu eta modu adiskidetsuan ondoren, azkenean faborez. Berak ezta kasurik ere, etxeko salan lotan segitu du, lasai askoan, Itunaz eta gutaz paso eginez. Bale, ongi da, gu, Ituna sinatzeko arratsaldean gelditu gara. Auzokideak deitu ditugu eta nire lotsarako, neska-lagunaren aurretik iritsi dira, denak beren bideo eta kamerekin. Gero neska-laguna etorri eta biok sinatu egin dugu txukuntxukun. Hemendik aurrera gauzak asko aldatuko ote diren galdetu digute auzokideek. Guk baietz erantzun diegu, lehenago ez genuen apenas deus ere, orain, aldiz, Ituna dugu. Kristoren Itun puska ●



Miru bila

Nafarroako harrapari negutarren errolda egiten ari da egunotan Gorosti elkarte

Negua Nafarroan igarotzen duten miru gorriak zenbatzen ari da Gorosti Natur Zientzien Elkarte. Lehenbizi etzalekuak, lo egiteko lekua, aurkitu behar dituzte, eta gero, bi asteburutan, banan-banan zenbatuko dituzte miru gorri guztiak, eta bide batez beste zenbait espezieetako aleak ere bai. Ez da lan makala eta, horregatik, txoriak ikustea gustuko duen edonoren laguntza eskertuko lukete.



Miruen lo egiteko aurkitzeko eta miruak berak zenbatu ari diren behar da, lastertasun gehiegi hurbilduz gero, miruak alde berritu. ● OSKAR MONTERO



Nafarroako harrapari negutarren erroldan nahi duten guzietan har dezakete parte hartzea ez da batera zaila, baina, betiere, txoriak ikusteko zailtasuna izan behar da. ● OSKAR MONTERO

Parte-hartzea 'on-line'

Nafarroako harrapari negutarren errolda egiten lagunduko dutenek Internet bidez egin dezakete. Bileretara joan ezin denak edo joateko bategorik ez duenak bere etxeko ordenadorearen bitartez eskura dezake erroldatzean parte hartzeko informazio guztiak. Gorosti elkartearen idazkari Alfonso Llamasek arras webgunera erabilgarria osatu du horretarako:

http://pagina.de/gorosti. Erroldatuko diren hegaztien marrazkiak, aztertuko diren lur eremuen mapa, bete beharreko fitxen ereduak, bilera eta ateraldien datak, behin-behineko emaitzak... Hori guztiak eta gehiago eskura dezake Gorostiren webgunera jotzen duenak.

Txoriak ikustea zaletasun zaharra

da, eta Gorostikoei teknologia berriekin uztartu nahi izan dute. Datuak informatizatzea gustatzen zaie, erabilgarriagoak izan daitezkeen. Horregatik, erroldatzearen koordinatzaile Juan Ignacio Deaneke lehen bileran kolaboratzaileei eskatu zien datuak Word edo Excel programetako dokumentuetan eman ditzatela. «Uste dut gaur egun hori eska daitekeela batera lotzarik gabe», gaineratu zuen. Era berean, Deaneke posta elektronikoa erabiltzen du batez ere kolaboratzaileekin harremanetan egoteko.

Bukatzeo, bi ohar: informazioa Internetetik eskura daiteke, baina txoriak zenbatzeko etxetik atera behar da, ezinbestean; eta, lasai egon dadila teknologia berriekin harremanik ez duena, bilerekin eta telefonoekin berdindun funtzionatzen segitzen baitute.


Mirua zenbatzen

Etzalekuak ongi kokatu eta gero, miruak zenbatzeko ekinen diote. Urtarrilaren 11tik 15era bitartean egingo dute. Etzalekuak kolaboratzaileen artean banatuko dituzte eta, guti gorabehera, batera zenbatuko dituzte Nafarroako etzaleku guztiak. 1993an eta 1994an miru gorrien errolda egin zen Nafarroan, penintsulako beste hainbat lekutan egin zen gisara. Orduan ehun bat lagunek hartu zuten parte miruen zenbatze horretan. «Basozainek lagundu gintuzten», azaldu du Llamasek. «Ea aruten ere euren laguntza lortzen dugun».

Nahi duenak har dezake parte erroldatze lan honetan, izan ere, Gorosti elkarteak Alfonso Llamasek biologoak erran digunez, aipatu elkarteak deialdi irekia egin du. «Parte hartu ahal izateko nahikoa da miru bat bereizten jakitearekin», esan du Llamasek. «Horretarako zaletasuna izan behar duzu, noski». Miruak, eta aipatu espezieetako aleak zenbatu beharko ditu kolaboratzaileak, eta ondoren fitxa bat bete. Ez da batera zaila, baina, Llamasek gogoratu duenez, txoriak ikusteko zaletasuna beharrezkoa da.


Baina Gorostikoei zertarako zenbatu nahi dituzte miru gorriak? Llamasek eman du horren esplikazioa: «Ebro uhaldearen harana garrantzitsua da miruaren hibernazioan. Neguan hemen ditugun miruak Ingalaterratik edo Alemaniatik etortzen dira. Hortaz, hemen zenbatzeak balio digu jakiteko zer moduz dagoen Europako miruen populazioa. Udan zailagoa baita miruak kontatzea». Horregatik, 1993an eta 1994an Nafarroan egin ziren erroldak RSPB Ingalaterrako Hegaztien Babeserako Errege Erakundeak diruz lagundu zituen. Mirua, hegazti harrapari guztiak bezala, legeak babesturik dago Europa osoan. Izan ere, harrapariak beharrezkoak dira izurriak kontrolatzeko. Eta orain da hori guzti kontrolatzeko garaia egokia.

→ Asier Azpilikueta




Miru gorria ('Milvus milvus')

Tamaina ertaineko harraparia da, zapelata baino pixka bat handiagoa. Bereizten erraza da: behealde gorri-nabarra, hegoetako orban zuria izan ezik, eta urkila itxurako buztan luze gorri-herdoila. Nafarroan habia egiten duten miruen populazioa nabarmen handitzen da neguan Europatik etorritako ale ugariekin. Hauek Nafarroan hibernatu eta otsaila edo martxoan arte egoten dira gurean. Neguan, miru gorriak lo egiteko talde handietan elkartu ohi dira; lo egiteko toki hauek, etzalekuak, makaldietan egoten dira, edo zuhaitz multzo tipietan. Etzaleku batean ehunka miru egon daitezke.



Zapelatz arrunta ('Buteo buteo')

Tamaina ertaineko hegazti harraparia da. Hego zabal eta biribilduek, lepo motzak eta buru handiak itxura sendoa ematen diote. Bere koloreak aldakorak dira, baina normalean gorputz azpikoa beltz-nabarra du eta hegoak argiak. Airean zirkuluak eginez igotzen da, hegoekin V itxurakoak eginez. Telefono zutoinetan edo antzekoetan pausatu ohi da, eta orduan ikusten ahal zaio bular aldeko zerrenda argiagorria.



Belatz gorria ('Falco tinnunculus')

Hego mehar eta buztan hagitz luzeko zapelatz tipia da. Ugaztun tipiak, narrastiak eta intsektuak ehizatzen ditu. Bere harrapakinak antzematen ditu kable edo zutoinetan pausaturik dagoelarik, edo airean mugitu gabeko hegaldian dagoelarik. Behetik ikusita, krema argi kolorekoa da, eta bular aldean zehar hegoetan orban tipiak ditu. Buztanaren ertzean zerrenda beltza nabarria du. Erraza da bereizten pausaturik dagoenean, bere buztan luzea dela eta.

«M AKALETAN PAUSATURIK 176 DAUDE, eta airean, 15 bat», erran du Gorosti elkarteak idazkari Alfonso Llamasek. Sarriguren herrixkako makaldi batean dauden miru gorriak aitaren batean zenbatu ditu prisma baten laguntzaz. «Egia errateko, orotara 250 bat izanen dira hemen; hobe da dauden baina gutiago kontatzea gehiago baino».

Gorostikoei, abenduan eta urtarrilean, Nafarroan diren miru gorriak, zapelatz arruntak, belatz gorriak, beleak, mikak, bele tikiak eta belatxinga mokogorriak zenbatuko dituzte. Miruen zenbatzeak du garrantzirik handiena, zapelatz eta belatzenak gero, eta korbidoenak ondoren. «Belatz gorriaren eta zapelatz arruntaren gaineko datuak baditugu», azaldu du Llamasek, «ez, ordea, korbidoena; horregatik, miruak, zapelatzak eta belatzak kontatuko ditugula

profitatuko dugu korbidoak ere kontatzeko. Dena dela, gutxi gorabehera izanen da, kopuru zehatza lortzea arras zaila baita».

Etzalekuen bila

Nafarroako harrapari negutarren errolda osatzeko prozesuak hainbat urrats ditu. Lehenbizi, miru gorrien etzalekuak bilatu behar dira. Azaroaren 27an hasi ziren horretan. Etzalekuen bilaketa hobeki egiteko Nafarroa 44 zatitan banatu dute.

Egungo ondoko bi-hiru orduetan edo ilunabar aitzineko bi-hiru orduetan egin behar da bilaketa. Dena dela, arratsaldean egitea errazagoa da. Sarriguren goaztean aurkitu genuen, 16:30ak aldera. «Gaurkoa egun lainotsua da eta, horregatik, lehenago etorri dira lo egitera», azaldu du Llamasek. Etzalekuak aurkitzeko nahikoa da hegaldi zuzenean doazen miruei segitzea. Etzale-

kuraino eramanez gaituzte. Etzalekuak herri, zabortege zein errepedeatatik hurbil egon ohi dira. Eta autoz egin behar da miruen segitzea, lastertasunetik.

«Hobe da gehiegi ez hurbiltzea, bestela hegan hasten dira», adierazi du Llamasek. «Horregatik zenbatzen dira autotik. Ale askok egiten dute lo elkarrekin. Hala, batek arriskuak ikusten badu, aieratu eta bere guztiak atzetik doaz». Argazkilariek hurbiletik egin nahi izan zuten argazkia Sarrigurengo miruei, baina ehun bat metrora hurbildu bezain laster zerua orbandu zuten berrehun bat miruk.

Etzalekuak edozein egunetan bila daitezke. Baina gero, pare bat egunetan, etzalekuen errolda koordinatua egin behar da. Etzalekuak ez baitira estatikoak. Bihar, larunbatarekin, 15:00etan egin dute hitzordua Gorostiren Caldereriako lokaletan, Iruñerriko etzalekuen bila joateko.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Daniel Baerthel durangarraz

Deitura txekiarreko Daniel Baerthel frantziskano durangarra euskaraz eginiko sermoi aunitzen egilea izan zen, alabaina predikatu zituenetatik bi besterik ez zaizkigu ailegatu, Durangoko eta Zumaiako Euskal Jaietan ogutzi zituenak alegia.



Daniel Baerthel Miota 1850eko apirilaren 9an jaio zen, Durangon. Frantzisko Ignazio Baerthel Dohisch txekiarra zuen aita, Bohemia aldeko Sonnenberg hirian jaioa eta handik Durangora iritsi eta bertan ezarritako merkataria. Patrizia Miota Arros-pide amaren aldetiko erroak, berriz, guztiz durangarraz ziren. Hogei urterekin Daniel Baerthel fraide sartu zen, Zarauzko frantziskotarren etxean hain zuzen, alabaina orduko giro nahasia zela eta, ordena erlijiosoaren debekua egokitu zitzaion. Denbora gutxi eman zuen etxean, dena den, eta berriz ere frantziskanoen abaroen lasterraren laster fraidetu ez eze baita apaiz-teari ere ekin zion, karlistaldiak sortu egoerak hala behartuta nonbait.

Giro horretan labainduta errazagoa zen ideologikoki ertzetan kokatzea baina, eta Baerthelen kasuan, ez ertzean haratago baizik, erradikalean erradikalean baitzen, katoliko setatsua, egunean integrista aisa deituko litza-tekeenaren barruan kokaturik baitzegoen. Politikoki karlista izan zelako, liberalismoaren aurkako porrokatua, Euskal Herriatik kanpo erbesteratu zuten Sotoko komentura.

Baerthelen lana pulpitan nabarmendu zen gutxiz gehien eta sobera. Lehenbiziko sermoiak 1877an eman zituen, Oñatin, garizuma predikatzen Arantzazutik joandako fraide gaztea zenean. Aunitz ziren frai Danielen hitza aditu zuten elizak, Hegoalde osoan ez ezik baita Aragoi eta Gaztelan ere, eta badi-ra Baerthelek ogutzi predikuak 13.500 inguru izan zirela seguramen handiz baieztatzen dutenak. Predikaldi sonatuaren artean Kortezubin lau mila pertsonaren aurrean eman zuena eta bereziki Beasainen, 1909an, hamar mila pertsonaren aurrean eman zuena aipatu beharko lirake.

Hain sermoigintza zabaleko gizonak, ordea, ez zuen ia ezertxo ere argitara eman, eta sermoi pare bat dira geuregan iritsi diren bakarrak, 1886ko Durangoko eta 1900eko Zumaiako Euskal Jaietan predikaturikoak hain zuzen. Esan lehenbiziko urte hartako uda bero-bero hasi zen. Ekainaren 3tik 8ra bitartean Arantzazuko Ama Birjinaren koroatzea zela-eta Lore Jokoak egin ziren Aizkorrieko monasterio frantziskanoan. Ekitaldien barruan Oiartzun josulaguna eta Baerthel frantziskotarra aiten sermoiak predikatu


ziren segituan lehiaketa literarioan gailendu idazleei sariak banatzeko. Erdarazko lanen egile saridunak Pastor, Reglero, frai Martin Beato eta Zubiaga izan ziren, eta euskarazko lanenak, berriz, Arrese Beitia, Etxegarai, Arbulo eta Arrue. Arantzazuko Lore Jokoen urriak gogoan oraino usaintsu zirauela, uztailearen 24tik 26ra bitartean Euskal Jaiak ospatu ziren Durangon. Lehenbiziko eguneko egitarauaren barruan meza nagusia, eta elizkizuna ahalik eta gehien aupatzeko sermoilari aparta, geure Baerthel aita, sona handikoa izateaz gainera hiriko semea zena.

Zumaiako Euskal jaiak 1900eko irailaren 22tik 24ra ospatu ziren. Kostaldeko hirian ohiko osagaiak ez ziren falta izan, bertsolariak, dantzak, kirolak, elizkizunak, edo baita Aita Santuaren nuntzioaren agerpena. Hauexek dira bada Baerthelek argitara eman zituen lan bakarrak, Durangoko Euskal Jaietan 1886ko uztailearen 24an hiriko elizan eta agintarien aurrean predikatu zuen sermoia eta egoera berean Zumaiako 1900eko irailaren 23an esan zuena. Lehenengo Durangon bertan eman zuen argitara, 1895ean, Egurrolaren sillutegian, bigarrena, ordea, 1900ean berean agertu zen, Donostiako *Euskal Esnalea* aldizkarian.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Iruñeko hilerrian, lurra, nitxo eta labea dituzu aukeran. • MIKEL SAIZ

Larekiren baratzea

Urtearen 365 egunetan egoten da zabalik. Heriotzak ez du oporrik hartzen. Iruñeko kanposantuaren izen ofiziala *San Jose* da. Beste izenik ere badu. Toponimiak hilerriko zelaia *Biritxitu* deitzen dela azaltzen digu. Hiritar askok, ordea, *Larekiren baratzea* deritza, hango lursailen jabearen izena gogora ekarriz.

Josu Garzia da bertako arduradun nagusia. «XIX. mendean erdiraino hildakoak elizetan ehorzten zituzten. Gerago, osasun arrazoiak zirela medio, gorpuak kanposantuetan lurperatzen hasi ziren». Egunero bost lagun berrik jotzen dute bertara bizitzera. Beraz, Heriok 1.600 bezerori ongi-egorria egiten die urte osoan. Batez beste, gizonezkoek emakumezkoek baino zortzi urte aurretik hartzen dute hara joateko txartela. Lehenago edo geroago, heriotzaren deia saihesteko aukerarik ez da egoten.

Hilda gaudela, berriz, Garzia jaunak hainbat aukera eskaintzen dizkigu. «Nitxoan hobiratzeko edo lur emateak 60.000 pezeta balio du. Horixe da gehien erabakia. Labean errausteak 20.000 besterik ez. Lautik bateko egiten du horren aldeko apustua. Panteoiek milioi bateko kostua dute. Dirudunek erosten dituzte soilik».

Azken orenean ere gizaki guztiak ez gara berdinak. Eskela, hilkutxa, tanatorioa, hilotzaren garraioa eta lore koroa kontuan harturik, 400.000 pe-

zetaren truke egin daiteke infernurako edo zerurako bidea. Dena den, guztiak ez dute azken bidaia berdinean egiten. «Eliza ebanjelistako kideek euren ministroak ekartzen dituzte hildakoari azken agurra emateko. Bestetik, Ekialdeko zenbait lagun hilobiak Ekialde-bera begira jartzen ditugu, senitartekoek hala eskatuta. Betiere, ijitoen ehorzketak dira jendetsuenak eta ikusgarrienak. Lutuz jantzita etortzen dira guztiak».

Musulmanek, ordea, ez dute tokirik Larekiren baratzean. Haien erritoak esaten du gorpuak eta lurrak elkar ukitzen egon behar dutela. Hala ere, hilerriko arautegiak hilkutxa ezinbestekotzat jotzen du. Budistek, berriz, hilerri propioa dute Iruñetik kanpo.

Iruñeko kanposantuko arduradunaren esanetan bisitari asko joaten da bertara, batik bat, santu guztien egunean, Gabonetan eta sanferminen aurretik. «Bada egunero etortzen den jendea ere. Hilarrian loreak paratzeko edo errezzatzeko. Sarritan, kontu kontari ere ikusi dituzten baita».

Hilerritik irten aurretik iruindar entzutetsu baten hilerri erraldoia ikusteko parada izan dut. «Hemen dago hilobiratuta don Pablo Sarasate y Navascues jaun txit gorena, hiri honetako seme kutuna. Iruñea 1844-05-10, Miarritze 1908-09-20. Haren arimaren alde otoitz egin Jainkoari. RIP». Amen.

Ziria

• Motxorrosolo •

Sendabelarra

Azoka sendabelar gisa baliatu izan da; aurten ere, hainbat egoera estaltzeko balio izan du. Urtean zehar bizi gaituen basamortua nabariagoa eginez. Alemania ekarri digute Durangora. Aurki, ezjakintasuna aitortuz eta simularoz haratako, Ipar Euskal Herriko literatura agertuko da Tabira aldean.



Koldo Goñi

NAFARROAKO MENDI FEDERAZIOKO PRESIDENTE BERRIA

«Kluberen eta federazioaren arteko komunikazioa hobetu nahi dut»



● MIKEL SAIZ

Azaroaren 20an, Nafarroako Mendi Federazioak presidente berria izendatu zuen: Koldo Goñi, Sanduzelai auzoko Gaztaroa klubeko kidea eta azkeneko urteetan Batzordean ibilia.

mendi ibilaldiez asko daiten pertsonak eta mediku bat, besteak beste.

■ Nola hobetuko duzue mendi taldeen gidarien heziketa?

Nafarroako Goi-mendiko Eskola indartu nahi dugu. Orain, momentu txarrak bizi ditu eta harekin kontaktuak izan ditugu dagoeneko bere eginkizunak sendotu eta zabaltzeko. Orain arte egiten zituen ikastaroekin jarraitzea nahi dugu, hau da, eskalada-izotzean eta harri-, alpinismo eta iraupen eskiko ikastaroekin. Baina, aldi berean, klubetako taldeen gidarien heziketan inplikatu nahi dugu, hauek eskatzen dutenari egokituz.

■ Federazioaren eta kluberen arteko komunikazioa sendotzeko, zer proposamen dituzue?

Zalantzarik gabe, hobetuko da, batzordekide guztiak klub txikietatik gatzelako eta beraz euren arazo eta larritasun guztiak ezagutzen ditugulako. Lehenengo arazoa diru eskasia da. Bestalde, jendeari behar bezalako deialdi bat helarazteko baliabideak ere ez dituzte, eta ekintzak antolatzen dituztenek

«Duela egun batzuk EAEko federazioko presidenterekin bildu nintzen. Egoera instituzionala dagoen bezala, bi entitate ezberdin gara, baina horrek ez digu galarazten elkarrekin lan egitea, eta harremanak normalizatu nahi ditugu»

soslaia

Koldo Goñi 35 urteko nekazaritza-ingeniaritza teknikoa da, eta obretan lan egiten du. Haurtzarotik mendizalea eta Gaztaroa klubean federatua, Batzordean ibili da azkeneko lau urteetan, eta, beraz, ederki ezagutzen du federazioaren funtzionamendua.

Bere ustez, «garrantzikoena lan taldea da, guztia horretan oinarritzen da, gauzak aurrera ateratzeko era bakarra elkarlana baita». «Taldea proposatuko dituzten ekimenak, eta gero lana geure artean banatuko dugu», dio.

Ez ditu atsegin ekitaldi ofizialak, eta «selektiboak» izan direla agindu du. Presidente izan den lau urteetan aipatu lau helburu nagusiak lortu nahi lituzke.

zaleek ikusi behar dute haien proposamenak federaziora iristen direla eta martxan jartzen direla, federazioak euren interesak kontuan hartzen dituela.

■ Azpiegituretan, gauza nabaria da eskaladarako instalazioak falta direla.

Inauguratu berria den Atarrabiako kiroldegian eskalada egiteko dirua gorde dute Kirol Departamentuak eta Udalak. Iruñean, aldiz, ez dago azpiegitureta aproposik. Argi dugu erakundeek horrelako azpiegitureta eraikitzeotan lehiaketa garrantzitsuren bat antolatu behar dela. Horregatik, eskalatazailerik ez dagoen talde gazte bat osatu nahi dugu Espainian lehia daitezen eta ezagun egin daitezen. Gero errazagoa izanen da azpiegitureta lortzea, lehiaketek dirua mugitzen baitute.

■ Nolako harremana duzue EAEko federazioarekin?

Duela egun batzuk EAEko federazioko presidenterekin bildu nintzen. Egoera instituzionala dagoen bezala, bi entitate ezberdin gara, baina horrek ez digu galarazten elkarrekin lan egitea, eta harremanak normalizatu nahi dugu. EAEko federazioan ere jendea aldatu da, eta, harremanak hotza bazen, hein handi batean zen aurrekoek harremanak formalismoan oinarritzen zutelako. Haien bileretara joateko asmoa dugu, eta berdin haiek guretarara. Baina ekintza zehatzetan ere kolaborazioa bultzatu nahi dugu. Eguberri ondoren bilduko gara zer nahi dugun eta zer egin dezakegun aztertzeko.

→Eva Aranguren

L AU DIRA BERE HELBURU NAGUSIAK: mendizaleen eta federazioaren arteko komunikazioa berreskuratzea, klubetako mendi arduradunen heziketa hobetzea, eskaladarako azpiegitureta publikoak lortzea eta EAEko federazioarekin harremanak normalizatzea.

■ Nola aurkitu duzu Federazioa?

Azken urteotan, hainbat ekintza antolatzen ziren, mendi ibilaldien inguruan batez ere. Ekitaldi ofizialetan ere parte hartzen zuen. Aldiz, federazioaren eta mendizaleen arteko harremanak ez zen behar bezain hurbila. Guk, hala, kluberen eta federazioaren arteko komunikazioa hobetu nahi dugu.

■ Zein proiektu eraman nahi dituzue aurrera?

Eskalada sustatu nahi dugu,



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

13 galdera mugaz alde honetakoei

Egia al da Durangoko aurtengo Azokan Irigoienen 700 orrialdeko liburua gehien saldurikoa izan dela? Hala bada, zenbat irakurle izanen ditu abenduaren hasierako ohiko bidaiatik jende askok etxeratu omen duen narrazio luzeak? Eta zenbat apalategitan geldituko da abandonaturik, triste, irakurlerik gabe Altzako idazleak XVII. mendeko Nafarroan kokatu duen eleberria? Idazle gipuzkoarrek liburu historikoa egitea erabakiz gero, egia al da hamarretik bederatzitan Nafarroa aukeratzeko dutela kokaleku? Eta hala bada, hemengo historia edo istoriak edo kondairak edo dena delakoak hain gustuko badituzte, zergatik ez dute ahalegin handiagorik egiten gaurko Nafarroa ezagutzeko, Oitz eta Agoitz herri diferentek direla, esaterako?

Kulturarekin zer ikusirik ez duen gai batera jauzi eginez: gure presidente txit argiaren ohiko haserre-aurpegiak zer erakusten du? Zoriontsu bizi al da alfonbraz beteriko jauregiko paretan artean? Eta hala izatera, erakutsiko al du noizbait aurpegi alaiagoa eta lasaiagoa, urte guti barru erabaki lotsagarrien zerrendak osatuko dituzten dekretuen berri ematerakoan esaterako? Eta gu, guztiok, gai izanen al gara azken boladan ugaritzen ari diren astakerien aurrean eguneroko lan txukunean oinarrituriko behar bezalako erantzuna, erantzun argia emateko? Edo, azkenean, ohituko al gara gure herrian arrotz sentiarazi nahi gaituztenen putakerietara?

Eta Arteta, aizue, posible al da tipoak pasa den astean bi artikulua egitea zertaz eta gizaki normalaz? Ez al da harrigarria bietan euskara behin ere ez aipatzea? Zein da bi galdere-tako harrigarriena, artikulua egileak gizaki normalaz idaztea edo bi artikuluetan euskara behin ere ez aipatzea?

Eta kirolekin amaituz, finaletik kanpo geldituagatik, nor da aurtengo lau t'erdiko txapelduna? Eta nor da gehien kobratu eta gutxien entrenatzen den kirolari mota? Agian, ingelesez ez jakin arren esaldi guztietan *mister* hitza erabili eta gaueko ordu txikietan diskoteketan ibiltzen direnak?

gure aukerak

MUSIKA

- **Etxarri-Aranatz:** Gaur arratsaldean, Pablo Sarasate kontserbatorioko Gazte Orkestrak *Jostuntxo ausarta* lanaren emanaldia eskainiko du, Kultur Etxean.
- **Gares:** Eric Sardinak eta Red House taldeek Gares aretoan joko dute, bihar, 23:00etan.
- **Burlata:** Inka taldeak kontzertua eskainiko du asteartean, 20:30ean, Black Rose tabernan.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Igandean, 20:00etan, *Ez da hain erraza antzezlan* eskainiko du Tentazioak taldeak, Nafarroako Antzerki Eskolan.

PAILAZOAK

- **Iruñea:** Larunbatean, Adur Pailazo Taldeak *Kuko, Truko eta Bolenwaider* lana taularatuko du, 12:00etan eta 18:00etan, Mikael aretoan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Asteazkenean *Fievelen abentura berri bat* filma pantailaratuko dute, Arrotxapeko Ipar Gorri tabernan, 17:30ean.

HITZALDIAK

- **Bera:** Gaur, Alberto Cascantek *Zigorrek eta sariak* gaia izanen du hipide gurasoei bideraturiko hitzaldian. 19:00etan Jaramotenean, Jesusen Bihotza Ikastetxeko gurasoek antolatua.
- **Iruñea:** *La quiebra de la soberania navarra en Alava, Guipuzcoa y el Duranguesado* izenburuko hitzaldia emanen du Nafarroako Parlamentuko artxibategiko zuzendari Luis Javier Fortunek, gaur, 20:00etan, Nafarroako Kutxako hitzaldi aretoan.
- **Iruñea:** Bihar, 17:30etik aurrera, kafe solasaldia egingen dute Mikel Soraren historialariarekin *Navarra, nuestra historia* gaia-

ren inguruan, Arrotxapeko Ipar Gorri tabernan. Kafea eta pastelak izanen dira.

- **Otsagi:** Bihar, Robert Larrandaburuk *Zuberoa, mendia eta kultura* izanen du mintzagai, 19:30ean, kontsultategian.
- **Mutiloagoiti:** Jesus Zamarbide margolariak bere lanaren inguruan hitz egingen du, asteartean, 20:00etan, Kultur Etxean.

KIROLAK

- **Iruñea:** Txantreako egunaren baitan, larunbatean, Txantreako IX. Herri Krosa egingen dute, Iribide parkean. Krosa

12:00etan hasiko da, eta 7,5 kilometroko ibilbidea izanen du. Izen-ematea Auzotegin edo Txorimalon egin daiteke, edo ordu erdi lehenago irteeran bertan.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Arrotxapeko Ipar Gorri tabernan *Nola egin gustuko duzun kamiseta hori* izeneko serigrafia ikastaroa egingen dute, igandean, 17:30ean. Parte hartu nahi duenak elastiko bat eraman behar du. Plastikoa erro-pak babesteko izanen dira, bes-telakoan zikinduko baitira.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Mariano Corral-Libano bizkaitarraren azken margolanak Topaketa eta Zerbitzu Profesionalen Zentroan daude ikusgai (Nafarroa Beherea, 47) hilaren 23a arte, astelehenetik ostiralera, egun osoz.

LEHIAKETAK

- **Eguesibar:** Udalak jaiotza lehiaketa abiatu du. Izen-ematea hilaren 20a baino lehen egin behar da, 948-331611 telefonoan. Hiru onenek Eguberrietako saskia eramanez dute.

• JOXE LACALLE



Irudimena

Debekuak, mugak eta murrizteak ugaritzen direnean, eskertzekoak dira erantzun irudimentsuak. Duela zenbait aste, EHNE sindikatuak, Iruñeko karraketan barrera traktoreak paseatzeko debekua zela eta, jostailuzko traktoreak atera zituen; erantzun barregarria eta eraginkorra debekuen bidegabekeria erakusteko. Irudiko andreaki zer pentsatua eman zion behintzat: «Zein haurrari lapurtuko ote zion lotsagabe honek traktoretzoxa?».

Orain Gobernuak beste muga bat paratu du euskararen mundu ttikian. Euskaltzaleek erantzun eraginkorra eman beharko dute murriztearen bidegabekeria erakusteko. Kontua da urteen poderioz geroz eta zailagoa dela mobilizazio orijinalak egitea. Lehenik eska diezaietela EHNEkoei traktoreak, eta gero pentsatuko dute zein harreman dagoen euskararen eta traktoreen artean.